

dotasun hori bai, antzematen dut, eta jende oso gaztea irakurtzen dabilela, hori ere bai. Baina onartu behar dugu istorioak kontatzeko moduak aldatu egiten direla, eta hori ez da derrigorrean txarra. Literatura jadanik ez dago autoritate tribuna batean; haren ordezkariak ez dira jada gauzak irakasten dizkiguten gizon burges eta intelektual batzuk. Pluraltasun askoz handiagoa dago orain.

### Irakurle gisa, zer testu izan dira zuretzat mugarririk?

Horri erantzuteko, leku pila bat beharko nuke. Umetan irakurritako *Mortadelo*-rekin hasi eta irakurri dudana azkenengo libururaino –[Nikolai] Gogolen bat da–, horrek guztiak irakurketa esperientzien magma bat osatzen du, nire begiratzeko modua moldeatzen duena. Gustatzen ez zaizkidan liburuetan ere beti topatu nezake zerbait interesgarria, aztertuz gero, esaterako, nondik datozen eragiten didan kontrako erreakzio hori.

### Eta noiz erortzen zaizu liburu bat eskuetatik?

Uste dut liburu batetik gutxien jasaten dudana lirismo faltsua dela, erretorika hutsaz eta lengoai nartzisistaz abusatzen duena. Nahiz eta segidan neure buruari galdetzen diodan: «Eta ni, salbu nago horretatik?».

## Groteskoen (ipuin) liburua

Nagore Fernandez

**S**herwood Anderson idazle estatubatuarren *Winesburg, Ohio* obra dugu EIZIEK, Ereinek eta Igelak elkarlanean argitaratu duten Literatura Unibertsala bildumako azken obra. Eta esaten den bezala: *last but not least*, alegia, azkena bai, baina, beste guztiak bezain garrantzitsua bildumarako. Joannes Jauregik euskaratutako nobela itxurako ipuin-liburuak (edo ipuin-liburu itxurako nobelak, nondik begiratzen zaion), landa-eremuko herrixka batera garamatza, Clyde herrian oinarritutako fikziozko batera, eta, pertsonaiak pertsonaia, baserri-paisaia horren argazkia osatzen digu.

Andersonen lana hainbat alderditatik iruditu zait interesgarria: batetik, genero literario bezala, erronka bat delako literatur sistema osoarentzat. Askok no-

bela bezala definitu dute; beste hainbatek, ordea, ipuin-liburu bezala. Izan ere, bi aldeek dute



SHERWOOD ANDERSON  
Winesburg, Ohio  
Jauregi

### 'Winesburg, Ohio'

**Idazlea:** Sherwood Anderson.

**Itzultzailea:** Joannes Jauregi.

**Argitaletxea:** Igel.

arrazoia, obrak bateko eta beste-ko ezaugarriak baititu: begiratu huts-hutsean irakurleak 22 kontakizun buruaski aurkituko ditu komposizioan, hortaz, fisikoki ipuin-liburuaren itxurako lana da. Irakurtzerakoan, oster, aise ohartuko gara euren artean lotuta daudela guzti-guztiak, eta Winesburg bera da lotura figura nagusia. Badira, hala ere, lotura sendoagoa eraikitzeke balio dituzten hariak; esate baterako, George Willard pertsonaia, idazlearen beraren alter egoa izan daitekeena, hain zuzen. Guztiak ere, independenteak izan arren, ipuinek eraikitzen duten unitate literarioa baino askoz zabalagoa den unibertsora garamatzate, nobelatik oso hurbilekora, bain, azken horien lausotasunera iritsi gabe. Ez bata, ez bestea, baina biak aldi berean, alegia, tradizio anglosaxoian *short story cycle* derizotena.

Bestetik, errepertorioari ez ezik, literaturaren poetikei ere egiten die argi obrak; literatura ulertzeko eta sortzeko modu bat dakar, ikuspuntu zehatz bat, eta asko estimatu dudana alderdia izan da hori. Goian aipatu dudanez, 22 kontakizun daude guztira, bada, hobeto legoke esatea 21 eta erdi direla osotara, eurretako

bat, lehenengoa, fikzionalizatu-tako poetika bat baita. Bertan bil-tzen da idazleak obran zehar da-rabilen ikuspuntuaren azalpena eta asmoen adierazpena (justifi-kazio moduan edo?), ipuinaren izenburuak iragartzen duenez, *Groteskoen liburua* baita *Winesburg, Ohio*. Ez ditu pertsonaien bizitzak diren-direnean ekar-tzen, ez dira erretratu errealistak, desitxuratuak baizik, sarritan irrigarriak, beste hainbatetan are absurdoak ere. Iruditu zait lehen ipuinak baduela indarririk teori-koki, eta idazleak, gainera, jakin duela begirada grotesko hori praktikara eramaten.

Azkenik, espero ez nuen sensibiltatea aurkitu dut autorearen hitzetan, sensibiltatea ez gaik tratatzeko moduan, ezpada xehetasunetan begia jarri eta hor-riek testuratzeko duen trebetasu-nean. Espero ez nuena, baina asko gustatu zaidana, aldi bere-an. Pertsonaiak ere hala hezur-mamitu ditu: euren baitara bil-duta, baina, sakontasun psikolo-giko handiarekin eta ertzez beteta. Ertzak direlako protago-nista nagusiak obran, xehetasu-nak eta pertsonaiak, ertzak dire-lako ipuinak, eta guztiak ere Wi-nesburgeko paisaia poliedrikoa osatzen dute.